

mutualia sarrien 8.edizioa

Lan-arriskuen Prebentzioko Berrikuntzaren Saria.
Enpresako Berdintasunaren Saria.



Gipuzkoa
Tfno: 943 440 526

Bizkaia
Tfno: 944 042 105

Araba
Tfno: 945 009 090

www.mutualia.es
prebentzioa@mutualia.es

2018 Gizarte Segurantzaren prebentzio-ekintzei buruzko plan orokorra



MINISTERIO
DE EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL

DIRECCIÓN GENERAL
DE ORDENACIÓN DE
LA SEGURIDAD SOCIAL

Plan de actividades preventivas de la seguridad Social 2018

MUTUALIAK, Gizarte lankidetza duen 2 zk.-ko Mutuak, MUTUALIA SARIEN 8. edizioa antolatu du, CONFEBASK, CEBEK, ADEGI, SEA, eta OSALANEKIN elkarlanean, berdintasuna eta prebentzioko berrikuntza sustatzeko.



SARIEN OINARRIAK

1. XEDEA

Mutualia sarien xedea da, kategoria guztietan, Mutualiako kide diren enpresek eta langile autonomoek egindako lana saritzea, ezagutzera ematea eta sustatzea, dela laneko arriskuen prebentzioaren alorrean ikerketa-proiektu bat, garapen teknologiko bat edo berrikuntza bat garatzeagatik, dela enpresetan genero-berdintasuna sustatzeko abian jarri diren jardunbide egokiengatik eta esfortzuagatik.

PREBENTZIOKO BERRIKUNTZAREN SARIRA aurkezten diren proiektuek hainbat alderdi gara ditzakete: prebentzioko esku-hartzeak, produktuak, sistemak nahiz tresna berriak, irakasmateria, konponbide teknologikoak, kudeaketarako metodologiak edo beste edozein jarduera, betiere helburua bada enpresetako eta haien inguruneko antolakuntza, lan-baldintzak eta pertsonen ongizatea hobetzen laguntzea.

BERDINTASUNAREN SARIRA aurkezten diren proiektuek hainbat alderdi gara ditzakete: prebentzioko, prozedura arloko edo metodologiako edozein esku-hartze, betiere helburua bada enpresetako eta haien inguruneko sexuagatiko diskriminazioa prebenitzen eta genero-berdintasuna hobetzen laguntzea.

2. HAUTAGAIK

Epaimahaiak erabakia hartzeko unean Mutualiako kide diren enpresa eta autonomo guztiak dute sari hau irabazteko aukera.

3. AITORPENA

Bi kategorietan saritutako enpresek eskultura bat jasoko dute, laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean edo berdintasunaren alorrean egindako ahaleginaren aitortpen gisa.

4. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA EPEA

Parte hartu nahi duten enpresek aurkezten diren kategoriarik dagokion inprimakia bete beharko dute (Prebentzioko Berrikuntzaren Saria edo Berdintasunaren Saria). Inprimakia horiek eskuratzeko, jo Mutualiaren webgunera (www.mutualia.es) edo eskatu Mutualiaren Prebentzioko Aholkularitzan (prebentzia@mutualia.es). Inprimakia horretan xehetasunez deskribatu behar da enpresak garatutako proiektu edo jarduera berritzailea edo bereizgarria.

Eskaera horri erantsi behar zaio, halaber, epaimahaiari proiektua aurkezteko erabiliko den powerpointa. Dokumentu horretaz gain, informazioa gehitzeko egokitzat jozen duten behar beste dokumentazio erants dezakete parte-hartzaileek.

Hautagaitzak aurkezteko epea 2018ko urriaren 15ean amaituko da. Dokumentazioa formatu elektronikoan bidaliko da. prebentzia@mutualia.es

Aurkeztutako dokumentazioa Mutualiaren esku geratuko da, salbu eta egileak espresuki kontraktorik zehazten ez badu.

5. HAUTAGAITZAK EBALUATZEKO IRIZPIDEA

PREBENTZIOKO BERRIKUNTZAREN kategoriako hautagaitzak ebaluatzeko, proiektuak txertatutako hobekuntzak eta alderdi bereizgarriak aztertuko dira, bai eta proiektua beste enpresetan eskuratu eta aplikatu daitekeen ere. Aintzat hartuko da enpresak duen ibilbidea istripu-tasari eta prebentzioaren kudeaketari dagokienez.

ENPRESAKO BERDINTASUNAREN kategoriako hautagaitzak ebaluatzeko, genero-diskriminazioa eragozteko eta berdintasuna sustatzeko jardunbide egokiak aztertuko dira.

Bi kasuetan, balioa emango zaio saria aurkezteko egunean proiektua ezarrita, garatuta edo argitaratuta egoteari; orobat, proiektuak izandako emaitzei ere erreparatuko zaie.

6. HAUTAGAITZEN AURKEZPEN PUBLIKOA.

Mutualia Sariaren bi kategorietako finalistek Mutualia sariaren ekitaldian aurkeztu beharko dute beraien proiektua, 2018ko abenduak 14, 15 eta 16ean Osalan-ek antolatutako "Laneko Seguratasunaren eta Osasunaren Nazioarteko IV. Kongresuaren" baitan izango dena.

7. HAUTAPEN-PROZESUA

Enpresa sarituak epaimahai profesionalaren eta Mutualia sariaren ekitaldira joaten den publikoaren bozketa mistoaren bidez hautatuko dira. Epaimahai profesionalaren botoak % 60ko balioa izango du, eta ekitaldian dauden ikusleen botoak % 40koa.

PREBENTZIOKO BERRIKUNTZAREN kategorian, Osalaneko, Confebaskeko, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzako eta Mutuialiako kideek osatuko dute epaimahai profesionala.

ENPRESAKO BERDINTASUNAREN kategorian, berriz, Euskaliteko, Emakundeko, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzako, Euskadiko Emakumezko Enpresariaren Elkarteko eta Mutuialiako kideek.

8. MUTUALIA SARIAK BANATZEKO EKITALDIA

Epaimahai mistoaren erabakia Mutualia sariak banatzeko ekitaldian bertan jakinaraziko da, 2018ko azaroaren 14an, Osalanek antolatutako "Laneko Seguratasunaren eta Osasunaren Nazioarteko IV. Kongresuaren" harira antolatutako ekitaldien artean. Ekitaldi horretan bertan banatuko zaizkie eskulturak saritutako enpresa eta langile autonomoei.

9. DATUEN BABESA

Parte-hartzaileek eta/edo enpresa parte-hartzaileen harremanetarako pertsona bezala ageri diren pertsonak, sarian parte-hartze hutsagatik, baimena ematen diote Mutuialiari beren datu pertsonalak jaso, gehitu, erabili eta fitxategi batean tratatzeko. Fitxategi horren titularra Mutualia da, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2 zk.-ko Mutua, fitxategiko arduraduna baita (helbidea: Henao kalea 26, 48009 Bilbo), eta helburua izango da aipatutako lehiaketa kudeatzea eta haren publizitatea egitea komunikabideetan, bitarteko telematikoak barne, sariaren araudia osatzen duten eta Mutuialiaren webgunean argitaratu diren oinarri hauen arabera. Datuak isilpekoak dira, eta Mutuialiak bakarrik erabili ahal izango ditu. Pertsona interesdunek araudiak aitortzen dizkien eskubideak baliatu ahal izango dituzte, eta, edozein modutan, datuak ezagutu, zuzendu, ezabatu, mugatu, eraman eta haiei aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu goian aipatutako helbidera idatzi bat igorrita, identifikazio-dokumentu ofizialaren kopiarekin batera.

Mutualia sariaren parte hartzen duten enpresetako ordezkariak espresuki ematen dute baimena beren agerraldi publikoak filmatu eta/edo edozein hedabide telematikotan eman ditzaten eta, ondoren, Mutuialiaren eta lehiaketaren erakunde kolaboratzaileen webgune korporatiboetan eta hedabideetan argitaratu ditzaten. Horrenbestez, beren irudia filmatzeko eta tratatzeko eta datu pertsonalak biltzeko eta tratatzeko baimena emango dute.

10. JABETZA INTELEKTUALA

Parte hartzen duten enpresek igorritako proiektuen aurkezpenak Mutualia sariak banatzeko ekitaldian proiektatuko dira, «Laneko Seguratasunaren eta Osasunaren Nazioarteko IV. Kongresuan». Enpresa hautagaiak igorritako dokumentazio guztia (inprimakia eta interesekeztat jotako gainerako dokumentazioa) epaimahai profesionalari helaraziko zaio, balora dezan. Hautagaizako bakoitzaren dokumentazioa eta hura defendatzeko erabilitako aurkezpenaren jabetza intelektualak enpresa hautagaiarena izango da beti, eta Mutuialiak ezingo du erreproduzitu aurretik baimena espresuki jaso gabe. Edonola ere, sariaren hautaketa-prozesuan bakarrik erabiliko da.

11. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar. Oinarriotan aurreikusitako gabeko edozein egoera antolatzaileek ebatziko dute. Edozer zalantza edo kontsulta izanez gero, deitu hurrengo telefono zenbakietara: 944 042 105 / 943 440 526 / 945 009 077.